


Yale: prestigioa esklaboen truke



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Killingworth (Connecticut, AEB), 1701. Collegiate School goi mailako ikasketa zentroa fundatu zuten. 1716an eskola berria New Havenera aldatu zuten eta handik bi urtera, 1718an, Yale izena hartu zuen gaur egun AEBetako eta munduko unibertsitate prestigio-dunetakoa denak.

Urte hartan Bostonen jaiotako Elihu Yale (1649-1721) negozio gizonak berderatzi merkantzia fardo eman zizkion dohaintzan unibertsitateari. 560 libra inguru lortu zituzten dohaintza salduta eta, horri esker, eraikin berri bat egitea lortu zuten. Horregatik jarri zioten unibertsitateari filantropoaren izena.

Hogei urtez Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainiako kide izan zen Yale; geroz eta kargu garrantzitsuagoak lortu zituen, eta 1684tik aurrera Madraseko (India) gobernadore izan zen. Espekulazioaren bidez, Konpainiaren dirua bere onurarako erabili zuen, merkatariekin isilpeko kontratuak eginda. Finean, India harpilatzen dirutza izugarria bildu zuen. Konpainiaren kontrako jardunak zirela eta, kargutik bota zuten 1699an. Ingalaterrara joan zen orduan, eta bildutako ondasuna xahutzen hasi zen, tarteka prestigioa eta izen ona emango zioten dohaintzak eginez. Hala, Madrasen bere krudelkeria eta diru-gosegatik ezagun egin zena, "karitate handiko gizona" bihurtu zen hil ondoren.

Azken urteetan Yaleren ondasunaren jatorria aztertu dute hainbat ikerlarik. Eta Joseph Yannielli historialariak funtsezko



Egile ezezaguneko koadro honen erdian Elihu Yale ageri da, Yale unibertsitateari izena eman zion negozio gizona. Eskuinaldean, haur esklabo bat dago.

elementu bat gehitu die Yaleren diru-iturrirei: esklabotza. Yannielliren esanetan, Yalek ez zuen soilik esklabotza onartu, "Indiako Ozeanoko esklabo merkataritza zuzendu eta bultzatu zuen". 1680ko hamarkadan arau berezi bat jarri zuen indarrean: Indiako portuetatik ateratzen ziren europar ontziek gutxienez 10 esklabo eramane behar zituzten derrigorrez.

Yaleren lehen biografoek ez zuten esklabotzarekin zuen lotura aipatu ere egin. Baina Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainiaren agiri eta akta guztiak digitalizatuta eta edozeinen eskura daude gaur egun, eta Yannielliren hitzetan, "orain ez dute aitzakiarik ezikusiare-

na egiteko". Yannielli ez da gaia aztertu duen bakarra eta geroz eta gehiago dira unibertsitateak izena alda dezan eskatzen ari direnak.

Azken hiru urtetan David Blight historialaria buru duen Yale unibertsitateko lantalde batek ere lotura hori xehe aztertu du. Duela aste batzuk, *Yale and slavery: a history* izeneko liburu mardula aurkeztu du unibertsitateak, ikerlan hori jasoaz. Horrekin batera, Yale unibertsitateak barkamena eskatu du instituzioak esklabotzarekin izan zuen loturagatik. Baina barkamen ofizialean izena aldatzeko aukera ez da aipatu ere egiten. ●



MUSEO DELLE CIVILTÀ DE ROMA

Neolitoko piragua sofisticatuak

1992. eta 2006. urteen artean, Erromako Bracciano lakuko uretan, Neolito goiztiarreko La Marmotta aztarnategia industu zuten. Berriki, *Plos One* aldizkarian han aurkitutako bost piraguen inguruko ikerlana argitaratu dute. Ontziak 7.000-7.500 urte inguru dituztela ondorioztatu dute. Ez dira inoiz aurkitutako ontzirik

zaharrenak, baina bai Mediterraneoan aurkitutako garai hartako bakarrak. Bost zuhaitz espezieetatik ateratako egurrez eginak daude piragua eta lehen nekazal komunitateek zeukatzen sofistikazio teknologikoaren adierazle dira. Mario Mineo ikerlariaren hitzetan, "benetako itsas ingeneritzaren emaitza dira". ●